



# AKTA

## Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2004ko uztailaren 27a.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena    **HASIERA-ORDUA:** 19:10    **AMAIERA-ORDUA:** 19:40

**BERTARATUAK:**    **Alkatea**  
Mirari Arruabarrena Elizalde

### **Zinegotziak**

Maria Elena Legarra Alfaro, Martxiel Genoba Solaberrieta,  
Noemi Ostolaza Arkauz, Eugenio Cotado Iturain, Aurora Azkue  
Mujika, Andoni Sarasua Oliden, M. Jose San Sebastian Aranburu  
eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

### **Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi

### **BERTARATU EZ DIRENAK:**

Eneko Olariaga Arruti eta Ramon Etxeberria Aldaz, herritik kanpo  
daudelako.



## Aztergai zerrenda

- 1.- Behin betiko onartzea, egoki bada, 2003ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honetako Aurrekontu Orokorraren Kontua.
- 2.- Hasierako onarpena ematea, egoki bada, 2004ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen kredituen aldaketarako 3/2004 zenbakidun espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 3.- Hasierako onarpena ematea, egoki bada, 2004ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen kredituen aldaketarako 4/2004 zenbakidun espedienteari, kreditu-transferentzia modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, 2004, 2005 eta 2006ko ekitaldi ekonomikoei dagozkien konpromisozko kredituak (urtebete baino gehiagoko gastuak).
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako kabinetan zerbitzuak eskaintzeko tasak.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko San Nikolas kalean dauden zenbait hiri-finken salerosketa eta Udal honetako Alkatetza-Presidentziari ahalmen osoa ematea salerosketaren eskritura publikoak egiteko.
- 7.- Hasierako onarpena ematea, egoki bada, Orioko udalerrian etxez-etxeko laguntza-zerbitzuaren Arautegiari.
- 8.- Hasierako onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuste eta Egokitze Espedienteari.
- 9.- Atxikitzea, egoki bada, Europako Hirien Iraupeneranzko Eskutitzari (Aalborg-eko Eskutitza).
- 10.- Onartzea, egoki bada, auto-taxien garraio zerbitzurako erregimen bereziko eremu bat ezartzeko lankidetzaz hitzarmena eta Alkatetza-Presidentziari ahalmena ematea sinatu dezan, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.



# ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta •

2004/07/27

- 11.- Izendatzea, egoki bada, Ordezko Aholkulari Orokorra, Udalbatzen taldearen ordezkari izateko GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA – CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIÁN finantza-erakundearen Batzar Orokorrean.
- 12.- Onartzea, egoki bada, 2005. urterako Orioko Udalerrian herriko jaiaren proposamena.
- 13.- Galderak eta eskaerak.



## Esan-eginak

### **1. BEHIN BETIKO ONARTZEA, EGOKI BADA, 2003KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONETAKO AURREKONTU OROKORRAREN KONTUA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak 2004ko ekainaren 28an eginiko bilkuran 2003ko aurrekontuaren Kontu Orokorraren berri eman zuen, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauren, 63. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Gipuzkoako Toki Erakundeei dagokiena.

Aipatu Kontu Orokorra, Batzorde Bereziaren txostenarekin batera, hamabost lanegunez jendaurrean jarri da eta ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**BEHIN BETIKO ONARTZEA**, 2003ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honetako Aurrekontu Orokorraren Kontua.

### **2. LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 3/2004 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEARI, UDAL HONEN AURREKONTUAREN 2004KO EKITALDIARI DAGOKIONA. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITUEN GEHIKUNTZA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko uztailaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2004ko aurrekontu propioari dagokion 3/2004 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen



kopurua 597.236,18 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu Gehikuntzak.

2.- Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzailletza.

**Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzakideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

### **3. LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 4/2004 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEARI, UDAL HONEN AURREKONTUAREN 2004KO EKITALDIARI DAGOKIONA. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITU TRANSFERENTZIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzailak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko uztailaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):



**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2004ko aurrekontu propioari dagokion 4/2004 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 15.296,80 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu Transferentzia.

**2.-** Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzaitetza.

**Aztartzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzakideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

## **4. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2004, 2005 ETA 2006KO EKITALDI EKONOMIKOEI DAGOZKIEN KONPROMISOZKO KREDITUAK (URTEBETE BAINO GEHIAGOKO GASTUAK).**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko uztailaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**ONARTZEA**, 2004, 2005 eta 2006ko ekitaldi ekonomikoei dagozkien konpromisozko kredituak (urtebete baino gehiagoko gastuak).



## **5. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO KABINETAN ZERBITZUAK ESKAINTZEKO TASAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko uztailaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**ONARTZEA**, Orioko Antilla hondartzako kabinetan zerbitzuak eskaintzeko tasak. Onartutako tasak honako hauek dira:

- Aulkiak, Paipoak eta Eguzkitako aterkiak: 0,35€/eguneko; 2€/asteko eta 6€/hileko.
- Etzaulkiak eta Surf-taulak: 0,55€/eguneko; 3,50€/asteko; 10€/hileko.

## **6. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO SAN NIKOLAS KALEAN DAUDEN ZENBAIT HIRI-FINKEN SALEROSKETA ETA UDAL HONETAKO ALKATETZA-PRESIDENTZIARI AHALMEN OSOA EMATEA SALEROSKETAREN ESKRITURA PUBLIKOAK EGITEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta Hirigintza, Ingurumen eta Zerbitzu Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**ONARTZEA**, Orioko San Nikolas Kalean dauden zenbait hiri-finken salerosketa eta Udal honetako Alkatetza-presidentziari ahalmen osoa ematea salerosketaren eskritura publikoak egiteko.



## **7. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALERRIAN ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUAREN ARAUTEGIARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta Gizarte Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

1. **HASIERAKO ONESPENA EMATEA**, Orioko Udalerrian Etxez-etxeoko Laguntza-zerbitzuaren Arautegiari.
2. Espediente hori jendaurrean agertzea HOGEITA HAMAR laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Epe horretan espedientea aztertu nahi duenaren eskueran izango da Udal honetako Idazkaritzan, astelehenetik ostiralera 08:30etatik 14:30etara, interesatuek Udalbatzarraren aurrean egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Arautegi hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

## **8. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSTE ETA EGOKITZE ESPEDIENTEARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta Hirigintza, Ingurumen eta Zerbitzu Batzorde Informatzaileak 2004ko uztailearen 19an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

1. **BERTAN BEHERA UZTEA** gai honi buruz Orioko Udalbatzarrak 2004ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran hartutako erabakia.
2. **HASIERAKO ONESPENA EMATEA**, Orioko Udalak sustatutako eta Iñaki Etxeberria Izagirre Arkitektoak eta Jose M. Abad Urruzola Abokatuak idatzitako





Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrazterketa eta egokitzapen espedienteari.

3. Espediente hori jendaurrean agertzea bi hilabeteko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo Gipuzkoako hedapen handiko egunkarietako batean azkenik argitaratzen den egunaren hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Epe horretan espedienteaz aztertu nahi duenaren eskueran izango da Udal honetako Bulego Teknikoan, astelehenetik ostiralera 08:30etatik 14:30etara, interesatuek Udalbatzarraren aurrean egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

## **9. ATXIKITZEA, EGOKI BADA, EUROPAKO HIRIEN IRAUPENERANZKO ESKUTITZARI (AALBORG-EKO ESKUTITZA).**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza, Ingurumen eta Zerbitzu Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**ATXIKITZEA**, Europako Hirien Iraupeneranzko Eskutitzari (Aalborg-eko Eskutitza).

## **10. ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXIEN GARRAIO ZERBITZURAKO ERREGIMEN BEREZIKO EREMU BAT EZARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ETA ALKATETZA-PRESIDENTZIARI AHALMENA EMATEA SINATU DEZAN, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda Batzorde Informatzaileak 2004ko uztailaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**ONARTZEA**, auto-taxien garraio zerbitzurako erregimen bereziko eremu bat ezartzeko lankidetzaz hitzarmena eta Alkatetza-Presidentziari ahalmena ematea sinatu dezan, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.



## **11. IZENDATZEA, EGOKI BADA, ORDEZKO AHOLKULARI OROKORRA, UDALBATZEN TALDEAREN ORDEZKARI IZATEKO GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA – CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIÁN FINANTZA-ERAKUNDEAREN BATZAR OROKORREAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, Arruabarrena (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Sarasua (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Legarra (EA), Cotado (EA) eta Azkue (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO ZORTZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzioarekin, guztira **ABSTENTZIO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

**IZENDATZEA** Mirari Arruabarrena Elizalde ordezeko aholkulari orokorra, udalbatzen taldearen ordezkari izateko GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA – CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIÁN finantza-erakundearen batzar orokorrean.

## **12. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005. URTERAKO ORIOKO UDALERRIAN HERRIKO JAIAREN PROPOSAMENA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**PROPOSATZEA** Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Segurtasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde-Ordezkaritzari Orioko Udallerriaren herriko jaia, lanerako egun baliogabea, ordaindua eta ez errekuperatu beharrekoa, 2005. urterako ekainaren 29a izan dadila, San Pedro Eguna, hain zuzen ere.

Hori guztia, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Segurtasun Sailak ekainaren 21eko 125/2004 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoa betetz, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoan 2005eko Lanegunetako Jaien Egutegi Ofiziala onartzen duen.

## **13. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Ez ziren izan.



Aztergai zerrendatik kanpo beste erabaki bat hartu du Udalbatzarrak, gaia alde zurratik eta **AHO BATEZ** urgentziazkoa izendatu ondoren (9 baiezko boto):

## **14. ALKATE-PRESIDENTEAREN AKORDIO PROPOSAMENA ORIOKO UDALBATZARRARI: ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI ESKATZEA BEHARREZKO OBRAK EGIN DITZAN ORIOKO HONDARTZARA TXANKATIK SARTZEKO ERREPIDEAN, AURREIKUSITA DAUDEN ORIOKO AUTOPISTAKO LOTURA-ERDIKO OBREN LAGUNGARRI.**

Udalbatzarrak alkatearen proposamenaren berri jasotzen du. Alkateak honako hau proposatzen dio udalbatzarrari: eskatzeko Foru Aldundiari Orioko hondartzara Txankatik sartzeko errepideko lanak oso-osorik sar ditzan 'A-8ko Orioko lotura-erdiko' lanen exekuzio proiektuan.

### GERTAKARIAK

- 1.- Orioko hondartzara Txankatik sartzeko errepideak herritik kanpokoei ematen die, batez ere, zerbitzu publikoa, zeren eta errepide hori, gehienbat, Igeldo edo Donostia aldetik Orioko hondartzara datozen bisitariak erabiltzen baitute.
- 2.- Errepide hori asko erabiltzen dute uda garaian Igeldoko eta Orioko kanpinetako erabiltzaileek; eta horiek, jakina denez, ez dira bizi ez Orioko ez Igeldon (Donostian). Orioko kasuari dagokiola, errepide horrek 13 baserriri baizik ez dio zerbitzu ematen irispide gisa.
- 3.- Aipatutako errepide hori kanpoko bisitari askok erabiltzen dute asteburuetan, oso toki eta paraje ederrak zeharkatzen dituelako eta Lusarbe inguruko aisialdiko gune ederrera irispidea ematen duelako. Askok, bestalde, N-634 errepideari ihes egiteko erabiltzen du, Donostiara iristeko modu azkar eta zuzena eskaintzen baitu; kontuan hartu behar da N-634 errepidean trafiko handia dabilela eta oso ohikoak direla erretentzioak eta eragozpenak.
- 4.- Begi bistakoa da, baita ere, Orioko hondartzara Txankatik sartzeko errepideak herriko mugak gainditzen dituen zerbitzu publikoa ematen duela, errepide hori, batez ere, Orioko Antilla hondartzara datozen kanpoko bisitari ugariak erabiltzen baitute, bide hori delako hondartza ingurura hurbiltzeko egokiena.
- 5.- Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 1999ko ekainaren 8an eman zion behin betiko onarpena 'Euskal Herriko Errepideen 2. Plan Nagusia 1999/2010' izeneko planari, eta plan horretan zehazten da zein diren Euskadiko Erkidego Autonomoan 2010a arte errepideen arloan egingo diren jarduketak eta inbertsioak. Plan horretan aurreikusitako inbertsioak exekutatzeko foru aldundien ardura da, eta Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herrilan Publikoen Sailari dagokio lan horiek gauza daitezen bultzatzea eta koordinazio lana egitea.



6.- Aipatutako Plan Nagusi horren 8.4 laukian ('Actuaciones por programas' izenekoan), loturen eraikuntza edo berrordenazioari dagokion atalean, lehen mailako lehentasuna (1 lehentasuna) ematen zitzaion Orioko lotura-erdiari (A-8 errepidea, 6.1. 5-1 kodea), eta esaten zen obrak 2001ean hasiko zirela eta 2003an bukatu. Hala ere, Garraio eta Herrilan Publikoko sailburuordearen 2002ko urtarrilaren 31ko Aginduaren bidez, Euskal Herriko Errepide Plan Nagusian programatutako jarduketan epeak eta lehentasunak aldatu egin ziren, eta, horren ondorioz, aipatzen ari garen lotura-erdiko lanen lehentasun berria 2 da.

7.- Orioko Udalak interes handia du Orioko lotura-erdiko azpiegitura lan horiek lehenbailehen egiteko, N-634 errepideko trafikoa arintzeko eta Orioko herriak behin eta berriz egin duen eskariari behar bezalako erantzuna emateko, azken helburu gisa, beti ere, bideko segurtasuna ahalik eta gehien bermatzea hartuta.

## ARRAZOIBIDEAK

1.- Orioko Udalari guztiz ezinezkoa zaio, dauzkan baliabide ekonomiko urriak kontuan hartuta, Txankako errepide hori kontserbatu eta ustiatzea; are gehiago, kontuan hartzen bada bide horren erabiltzaileak Orioko bizi ez diren pertsonak direla gehienbat, eta, beraz, bideak udalerraren esparrua gainditzen duen zerbitzu publikoa ematen duela. Horren guztiaren ondorioz, ezinbestekoa da dagozkion erakunde eta administrazio publikoen inplikazioa.

2.- Orioko hondartzara Txankatik sartzeko errepidea, gaur egun udal titularitatepekoa dena, nahitaez erabili behar da Orioko lotura-erdiko lanak exekutatzeko, eta, errepide horrek udalaz gaindiko izaera duenez, dagokion erakundeak berehala egin behar ditu beharrezko lanak errepidea egokitzeo, Orioko lotura-erdiko lanen lagungarri izan daitezten. Komeni da Orioko hondartzara Txankatik sartzeko errepideko lanak lotura-erdiko lanak egin aurretik, edo haiekin batera, egitea; are gehiago, kontuan hartuta lotura-erdiko lanetan aurreikusita dagoela Txanka aldera doan bidea egokitzea, N-634 errepidearekin lotzen den gunean. Udalak, hori guztia ikusita, uste du nahitaezkoa dela Antilla hondartzara doan bide zatia ere egokitzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, aurreko guztia aztertuta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**1.- ESKATZEA** Orioko hondartzara Txankatik sartzeko errepidea oso-osorik sartzea 'A-8ko Orioko lotura-erdiko' lanen exekuzio proiektuan, beharrezko lanak egin daitezten lotura-erdiko lanen lagungarri izateko: batetik, Txanka aldera doan bidea egokitzea, N-634 errepidearekin lotzen den gunean; eta, bestetik, Antilla hondartzara doan bide zatia ere egokitzea

**2.- BIDALTZEA** Udalbatzarraren erabaki honen ziurtagiri literal bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren Errepedetako Zuzendaritza Nagusiari, jakinaren gainean egon dadin eta horren ondorioz joka dezan.



# ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta •

2004/07/27

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA**